



### **“Gure ikastetxean ez dago lekurik LGTBfobiarentzat”**

Orokorrean aniztasun- sexualarekiko jarrera diskriminatzailea da. Nahiz eta azken hamarkadotan aurrerapauso itzela eman bisibilizazioan, onarpen mailan, eta legeberdintasunean.

LGTB pertsonen kontrako uko egite, agresioak, diskriminazioa eta jazarpenak ez dira desagertu. Ikastetxeetan ere honelako ikasleriaren kontrako diskriminazioa ematen da: mehatxatzen da, iraintzen da, ez ikusiarena egiten da, umilatzten da. Bortizkeria psikikoa denean autuestimua kaltetzen da. Badira beste hainbat portaera, bortitzatzat jotzen ez direnak, baina ezinegona eta mina sortzen dituztenak; esaterako, genero estereotipoei ez jarraitzeagatik aditzen diren txistekak, esamesak.

Hauek guztiak ere bortizkeriak dira. LGTBfobia normalizatu egin dugu, beraz, garrantzia kendu izan zaio LGTB ikasleek egunero pairatzen duten bortizkeria. “Haurren kontuak” direla esaten dugu askotan. “Marimutil” edo “marikoi” bezalako hitzei garrantzia kentzen diegu. Batzuetan aipatutako hitzak ez ditugu iraintzeko erabiltzen, agian, baina beti da diskriminazioa.

LGTB pertsonak egunero pairatzen dute inbisibilizazioa, estigma kutsadura (defendatzen baditugu edo haiekin harreman estua izaten badugu, aski izan daiteke erasoen jomugan jartzeko. Horiek guztiak ez dira garrantzirik gabeko txantxak eta ez dira kasualitatez egiten, LGTB pertsonen kontrako agresioak banalizatzen dituen kultura sexistaren isla direlako.

Egoera honi buelta emateko, interakzio hauetan parte ez hartzea ez da nahikoa, proaktiboak izan behar dugu. Baina banalizazio honen ondorioz, askotan ez da erraza behar-beharrezkoak diren erantzun trinkoak noiz eman identifikatzea, ezta erantzun eraginkorrek asmatzea ere.

Ez da erraza ez, are gutxiago erantzunak bakardadean ematen badira. Berdinen arteko tratatu txarrek biktimaren eskubideak urratzen dituzte, haren osotasun psikikoa eta fisikoa.